

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA ETA NEKAZARITZA SAILA

Jendaurrean jartzeko iragarkia. Espedientea 20/36

Gebarako Gaztelua Ureztatzaileen Elkarteak sustatzen du "Arabako Zadorra ibaitik Gebara-Audika eremuko ureztaketa hobetzeko urmaela egiteko proiektua". Ureztatzaileen Elkarte honek Zadorra ibaiko zenbait ur emakida ditu 17,50 ha-ko azalera ureztatzeko, guztira 7 l/s-ko emariarekin. Laboreek ur gehiago eskatzen dute Zadorra ibaiaren emaria txikia den garaian, eta horrek bi arazo eragiten ditu batez ere. Alde batetik, garai horretan emari ekologikoa kolokan egon daiteke, eta, bestetik, uren kalitate baxua, *Ralstonia solanacearum* mikroorganismoa dagoelako. Horrek zimeldura bakterianoa eragiten du landare ostalari ugaritan, besteak beste patataren laborantzan, eta tuberkuluaren usteltasuna eragiten du. Egoera hori hobetzeko, Zadorra ibaitik elikatutako metaketa urmael bat egitea planteatzen da, lurrazpiko eroanbide baten bidez, ureztatze garaian laboreen behar hidrikoak estaliko dituena, Zadorra ibaitik baliabide hidrikoak atera beharrik gabe, ibaiaren emaria hain larria den aldi horretan.

Laburpena

Ureztatze diseinua izango da udazkenean eta neguan Zadorra ibaitik datorren ura urmael batean metatzea. Urmael horretatik, 28,00 ha-ko azalera bat hornituko da, Gebara inguruan. Urmaela eraikita, ureztatzeko azalera egungo 17,50 ha-tik 28,00 ha-ra igaroko litzateke. Urmaela (Koordenadak ETRS-89 UTM 30N x: 540789, Y: 4749145) Barrundiako udalerriko 3 poligonoko 468 lurzatian egongo da, 94.748 m²-ko edukiera izango du eta belardi gisa erabiltzen den laborantza lurzati baten 2,62 ha okupatuko ditu. Urmael horretako ureztapena Ureztatzaileen Elkarteko finketara banatzeko lurpeko sareak 9.636,45 m-ko luzera izango du. Urmaelaren hondoa 586,80 kotan kokatuko da lurren gailurreraino (596,80), eta itxiaren ardatzean 10 metroko altuera izango du. Dikea egiteko kontuan hartu den ereduak sekzioa homogeneoa izango da, lubetaren barruko ezponda osatzeko erabilitako ontzia induskatzetik ateratako material fin eta solteekin, non dentsitate handiko polietilenoeko xafla jarriko baita. Udazken eta negu garaian (urria-otsaila) "Gebarazabala" urmaela betetzeko, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak baimendutako ura hartzeko gune bat erabiltzea aurreikusten da. Urmaelaz gain, proiektuak honako azpiegitura edo eraikuntza hauek jasotzen ditu: Balbulen etxola, etxolara sartzeko bideak eta eroanbide eta banaketa sarea bera.

Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa igarotzea

Aipatutako proiektua Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako ingurumen inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozeduraren pean dago.

Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak txostena eman zuen 2021eko otsailaren 21ean, ingurumen inpaktuaren azterlanaren irismena zehazteko.

Sustatzaileak ingurumen inpaktuaren azterlana egin du, eta eskatzen du ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren prozedurari jarraipena ematea. Hala, bada, proiektuak jendaurrean jarrita egoteko eta eragindako herri administrazioei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko izaipidea igaro behar du, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak 21. eta 22. artikuluetan ezarritako eran. Hortaz,

Ebazten dut

Jendaurrean jartzea "Zadorra ibaitik (Araba) Gebara-Audika eremuko ureztaketa hobetzeko urmaelaren proiektua". Proiektuak dokumentu hauek dauzka:

- "Zadorra ibaitik (Araba) Gebara-Audika eremuko ureztaketa hobetzeko urmaelaren proiektua" ren ingurumen ebaluazioaren hasierako dokumentua. Urmaela eta instalazio osagarriak. Zuazo Ingenieros, S. L. sozietateak idatzia.
- Ingurumen inpaktuaren azterlana (2021eko martxoa). CRN Consultora de Recursos Naturales, S. L.

Agiriak eskura egongo dira aztertzeko, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren bulegoetan (Probintzia plaza, 4-2 eskuina) eta Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren bulegoetan (Diputazio kalea 13, behea), Gasteizen; bai eta Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa ere, <https://irekia.araba.eus/es/catalogo-informacion-publica> helbidean (dokumentazioa aurkitzeko, sartu "20-36" bilatzailean).

Interesatuak alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza, 5, 01001, Gasteiz), 45 egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta Ingurumen eta Hirigintza Sailari edo Nekazaritza Zuzendaritzari zuzendu ahalko zaizkio, bata zein besteari.

Gasteiz, 2021eko irailaren 3a

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

MARÍA NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA